

GIZARTEKINTZA. 2002ko martian amaituko dira egokitzapen lanak

Eguneko Zentroak 28 lagun hartuko ditu Zorrotzan

Aldundiak, Udalak eta BBK-k 60 milioi inbertituko ditue egoitzan



XOUSE XIMAL

Iñaki Azkuna, ezkerrean, Josu Bergara, erdian, eta BBK-ko Saenz de Buruaga atzoko sinadura ekitaldian.

Hasier Rekondo |

Eguneko Zentro barriak zorrotzarren preminazko gizarteratze ekimenak eta edadetuen bizitza egoera baldintzen hobekuntzak izango ditu jorratu beharreko erronka nagusiak. Montevideo Etorbideko 121 zenbakian lekutuko dan eraikinak 28 erabiltzaileentzako zerbitzua eskainiko dau 2002ko martiatik aurrera, Foru Aldundiak ezarri dituan aurreikuspenak bete ezker.

Aldundiak 20 milioi pezeta erabiliko ditu eraikinaren barritzatze lanetan; Bilboko Udalak, bere aldetik, beste 20 aurreikusi ditu sarbideak eregiteko eta egoitzaren moldatze eginkizunetarako; Bilbao Bizkaia Kutzak, azkenik, gainontzeko 20 milioiak aurrerratu ditu, lokalak erosteko eta lanak burutu ahal izan daitezkan.

Atzo Aldundiko Jauregian ospatutako hitzarmenaren sinadura ekitaldian Josu Bergara Ahaldun Nagusiak adierazotakoaren arabera, «egitasmoak gizarte azpiegiturak sortzeko daukagun konpromisoa berregiten dau». Ahaldunak gehitutakoaren arabera, «burutu dogun ikerketaren arabera, babes maila ona erakusten dogu gizartekintza arloan».

Zorrotzak Eguneko Zentro-

ERAZUGARRIAK

Laguntza etxea: hirugarren adina eta gizarteratzea

Eguneko Zentroak 28 erabiltzaile izango ditu osotara, gizarte egitasmo bitan bananduta: psikogeriatria gunea eta gizarteratze unitatea.

HEDADURA. 400 metro koadro erabilgarri, lur sailak 625 metro ditu osotara.

AURREKONTUA. 60 milioi pezeta, hiru sustatzailen (Aldundia, Udala, BBK) artean.

KUDEAKETA. Lehiaketa publikoz adjudikatuko da.

an parte hartuko daben hiru erakundeek psikogeriatria eta gizarteratze zerbitzuak ahalbidetatuko ditue.

Ekitaldian izandako Jose Maria Saenz de Buruaga BBKko Zuzendari Nagusiaren berbetan, «pozgarria da gaurko moduko albisteak emotea, estatuan emoten diran ekintzakaz konparatuz eredugarri gara».

Zentro barrian sartu ahal iza-

teko eskakizunak udal gizarte zerbitzuetatik bideratuko dira. Erabiltzaile bakoitzak dauan egoera ekonomikoak baldintzatuko dau ordaindu beharreko diru kopurua; Aldundiak, barriz, erabiltzaileak ezin dauana ordaindu hartuko dau beregain, Aldundiko iturrien arabera.

Lehiaketa publikoz adjudikatuko dira aitatutako lanak, teknikariek, 2001ko martian hasita, hamabi hilabeteko epealdia jarri dabe Zerbitzua martxan jarri daiten. Lanoi jagokenean, Eguneko Zentrorra sartu ahal izateko urigintza lan egokierak burutuko ditu, aukeratutako enpresa pribatuak.

Errekaldeberriko egoitza

Iñaki Azkuna Bilboko alkateak, bere aldetik, erakundeek gizartekintzan, eta hirugarren adinekoen esparruan, egiten dabil-tzan apostua goratu eban, atzoko agerraldian. Azkunak gehitu ebanez, uriburuan antzeko zentro barriak edegiko dira laster. «Errekaldeberriko Gaztelondoko lurrak lortu doguz, honezaz ganera, beste erresidentzi eta eguneko zentro bat eregiteko asmoa dogu Bilbon, lurrak bilatze lanetan dihardugu».

Bergarak 50 mila milioko aurreikuspena dau Hirugarren Adinekoen alorrean 2010 urtera arte, 650 plaza barri osotara.

BILBO. Ordainketa era aukeran dabe uritarrek

Udalak garagarrilera arte luzatu dau zergak kobratzeko epea

Erredakzioa |

Udal zergak aukeran ordaintzeko era dabe herritarrek pasa dan urtarrilaren 2tik indarrean dan udal sistema barriari esker. Holan, Udalak aurretiaz jakinarazoko deustie herritarrei, ordaindu beharreko diru kopuru osoaren barri izan daien.

180.000 auzokide izango dira sistema barriak eskaintzen dauzan abantailen onuradunak: banketxe kontu bakarrean helbideratu beharko dira ordainketok, Ogasun sailean datuak

emon ostean. Dana dala, herritar guztiek ez dabe baldintza hau betearazo, eta martiaren 25 baino lehen ordaindu beharko ditue Ondasun Higiezinaren ganeko Zerga edo Jarduera Ekonomikoen ganeko Zerga, besteak beste.

Halanda guzti be, zenbait herritarrek, edadetuek batez be, ez ei dabe aldatetaren ganeko informazinorik jaso eta kexu agertu dira. Zenbait herritarrek ez eutsien kasu handirik egin argibide orrialdeari, publizitatearen itxura ebalakoan.

Lehendakari Agirre kalea eta Elorrieta lotuko dituan bidegorria egiten hasi dira

Erredakzioa |

Deustuko Lehendakari kalea eta Elorrietako bihurtunea lotuko dituan bidegorriaren obrak hasi ziran atzo. Euskalduna zubiaren inguruan dagoan bidegorriagaz eta Diputazioak Ibaizabal erre-karen ondoan egingo dauan bidegorriagaz bat egingo dau geroago. Errekaren eskumako alde eta Errekalde auzoak bidegorriagaz lotzea lortuko da holan. Uriburuan bizikletaren erabilera sustatu gura dau Bilboko Udalak

«inguru garbiagoa eta bizitzeko baldintza hobek lortzearen».

Bidegorriak hasieran eukan ibilbidea aldatu egin dabe arduradunek. Bidegorria espaloietatik egitekoak ziran, baina orain errepidetik bertatik joango da. Horrenbestez, 66 aparkaleku kenduko ditue, TAO eremuak guztiak. Ganera, errail biko bidegorria izango da. Hasierako proiektuan errail bakarreko bidegorria egitea aurreikusi zan, baina, azkenean, bikoa izango da.

BARAKALDO. Udalbatzaren baietza, eguenan

Ansioko lurrak birkalifikatu ditu Udalak, Erakustazoka berton ipini ahal izateko

Erredakzioa |

Urigintza saileko informazio batzordeak Nazioarteko Erakustazoka kokatuko dan Ansioko lurren birkalifikazioa onartu barri dau. Udalbatzak eguenan berretsi beharreko erabagia 412.000 metro koadroko erabilpen barriari jagoko. Birkalifikatutako lur sailotan Bizkaiko Labe Garaiak egozan.

Datorren egunean, Udalbatzak berretsiko dauan erabagia Aldundiaren lurren erabilera barriari jagoko. Au-

retiaz, Ikea multinazional suediarrek merkataritza gunea gauzatzeko asmoa izan eben Udaleko Urigintza arduradunek.

Diego Moyano Urigintza zinegotziak ez dau zehaztu oraindino Ansion baimenduko dan eregiteen nondik norakoa. Erakustazokak, guner berdeak eta bideen egituren barri bakarrik emonaz, Barakaldoko saihebidetaren ganeko datu gehigarriak barneratuz. Udalbatzak Erakustazokan izango dan udal partaidetza erabagiko dau.